



AKTIBATUZ: BIZIAREN, OSASUNAREN ETA EMAKUMEEN OROIMENAREN
IBILBIDEAK

EMAKUMEEN OROIMENAREN IBILBIDEA

11. MONIKA LEKUMBERRI PARKEA EMAKUMEAK ETA EUSKARAREN TRANSMISIOA KLANDESTINITATEAN

Emakumeek ezinbesteko zeregina izan zuten Gerra Zibilean, klandestinitatean, erbestean eta trantsizioan euskara igortzeko orduan. Karmele Perezek, Pedagogiako doktoreak eta EHUKo irakasle zein ikertzaileak, elkarrizketa batean adierazi zuenez, «ikastoletan andereño lan egin zuten emakumeek berezko idiosinkrasia eman zioten lanbide horri, euskal hizkuntza eta kulturaren berreskurapenean inplikatu zirelako». Pedagogoko nabarmendu zuenez, «diktadura frankistak haien hezkuntza-lana hautsi zuenez, erabat aurkakoak ziren ezaugarri soziopolitikoak zeuzkan mugarri argia izan zen».

Monika Lekunberri Uriona (Galdakao, 1910eko maiatzaren 19a - 1987ko apirilaren 14a) andereño horietakoa izan zen. 2014an, Galdakako Udalak omenaldia egin zion, eta, bertan, bere ikasleek zein senideek bere ibilbidea gogoratu zuten. Gaztetan, hain zuzen ere, erregimen frankistak liburuak edukitzea eta irakastea ere debekatu zion, «eskola antipatriotikoan» lan egin zuelako. Izan ere, klandestinitatean lan egin zuen. «Ikusi dugunez, Monika oso abertzalea zen, oinarri sendo-sendoak zituen, konpromisoa zeukan bere herriarekin eta bete-betean lan egin zuen herriaren alde», gogoratu zuen Koldo Lekunberrik, bere lobak, honako hauxe argitu baino lehen: «ikaragarri sufritu bazuen ere, inoiz ez zuen hitz txarrik izan, eta inoiz ez zuen erakutsi ez saminik ez biktimismoa».

2015ean, bere izena jarri zioten orain kokaleku dugun parkeari.



AKTIBATUZ: BIZIAREN, OSASUNAREN ETA EMAKUMEEN OROIMENAREN IBILBIDEAK

EMAKUMEEN OROIMENAREN IBILBIDEA

BAZENEKIEN...

2015ean Galdakaoko Udalak Gregorio Arrienek Monikaren bizitzari buruz idatzitako liburu hau argitaratu zuela: “Monika Lekunberri Uriona: Leizaolatar Karmel Euzko Ikastola”?

MI(cro)RELATO

Hesietatik Haratago Hezi

Dena ezkutuan egin behar izan zenuen garai haietan, agerian utzi zenuen hezkuntzaren garrantzia. Ikastolen zutabeetan sinistu zenuen eta umeari nortasun aske bat eraikitzeko adreiluak eskaini. Euskararen ezpainak karmin gorriz marraztu zenituen, emakumeari hegoak eskaini, ezberdinoi eta ertzetakoei burua harrotasunez altzatuarazi. Arestiren hitzak gogoratuz, zuk utzitako etxea defendatzen jarraituko dugu, otso denen kontra.

Irati Bediaga Rementeria

Esteka interesgarriak

<https://www.sabinoarana.eus/en/sala-de-prensa-notas/las-mujeres-como-vehiculo-de-transmision-de-los-valores-nacionalistas-vascos>

<https://www.elcorreo.com/vizcaya/v/20140416/nervion/monika-lekunberri-andereno-galdakao-20140416.html>

https://es.wikipedia.org/wiki/Monika_Lekunberri#cite_ref-7

<https://www.youtube.com/watch?v=iQsPCcXXJso>

Arrien, Gregorio (2015). *Leizaolatar'Karmel Euzko Ikastola*. Ayuntamiento de Galdakao. Disponible en la biblioteca municipal.